



Giza Liburutegiak 2018

Ametz bati segika?

—

Sonia Guzmán

GIZA LIBURUTEGIAK 2018

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

"Giza liburutegiak" Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

Sonia Guzmán eskertu nahi dugu Asociación Intercultural Cinco Estrellas elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.

Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner

Amets bati segika?

10 urteko bi seme-alaba ditu. Bere esperientzia oinarritutako istorioa dakar, “¿Emigrar por un sueño?” izenekoa, eta galdera moduan ipini du, zeren askotariko arrazoi eta motiboen ondorioz uzten du pertsonak bere bizitokia. Hau da Soniaren istorioa, haurtzarotik datozkion arrazoi mordoa medio, emigratzea erabakitzen duen emakume baten istorioa.

“Nire historia kontatuko dizuet, eta horretarako nire amaren historia kontatuko dut lehenengo. Nire ama herri batean bizi zen, Tegucigalpa hiriburutik 50 kilometrora. Nire amak 16 urte zituela alargundu zen amona, eta zazpi seme-alabaren ardura hartu behar izan zuen bere gain. Egoerari aurre egin behar izan zion, beraz nire osabak gazterik hasi ziren lanean, eta ama zenez etxeko alaba bakarra, amabitxiaren etxera joan zen bizitzera. Etxeko lanekin laguntzen zion, eta amabitxiak janaria eta diru apur bat eman ohi zion, etxera eraman zitzaion.

Amak kontatu zidanez, garai hartan hasi zitzaizkion gizonak inguratzen, eta amabitxiaren etxe inguruko norbaitek eraso egin nahi izan zion, beraz amak etxe hura utzi zuen, lan bila, eta jostundegi batean hartu zuten. Hantxe ezagutu zuen nire aita. Nire aita langilea zen, ederra, nik zer dakit... Elkar ezagutu zuten, elkarrekin hasi ziren eta ezkondu egin ziren. Amak pentsatu zuen horrela kenduko zituela gainetik erasotzailea eta atzetik zebilzkion beste gizonak.

Amak 19 urte zituela jaio zen lehen alaba. Urteak joan eta etorri, bost seme-alaba ekarri zituen, laugarrena ni neu. Eta handik hamalau urtera beste hiru seme-alaba ekarri zituen, beraz, orotara, zortzi anaia-arreba gara.

Ez dut haur garaiko konturik oroitzen, esaten dutenez errazago akordatzen gara gauza zoriontsuekin, eta nik apenas dut haurtzaroko oroitzapenik. Baina gogoan dut ama beti egon zela etxean, gu zaintzen, etxeko lanak egiten eta etxeko hezkuntzak dakarren guztiaz arduratzen. Zergatik? Bada gure herrialdea oso matxista delako eta oraindik ere sinesten

delako emakumeek etxean behar dutela eta gizonek lanean. Amak jostundegian egin zuen lan etxean ere laguntzeko.

Gogoan dut estu samar bizi ginela. Sarritan bi haurren artean banatu behar genuen arrautza bat, gosaltzeko gailera txiki bat besterik ez genuen... Baina horrek ez dit oroitzapen txarrak ekartzen, aitzitik, miresten ditut gurasoak, ahalegin handiak egin zituztelako.

Nire aita oso zorrotza zen, ez zitzaion gustatzen besterekin harremanetan egon gintzen. Beraz, etxetik eskolara eta eskolatik etxera, besterik ez genuen egiten. Horrek guztiak zapaldu egin ninduen eta akatsak egin nituen. 17 urterekin mutil bat ezagutu nuen, itxuraz ona zena. Eta hortxe hasi zen nire historia.

Hasieran ezkutuka ikusten nuen mutil hura. Jainkoari eskerrak, bigarren hezkuntzako gradua lortu nuen eta kontularia naiz. Baina 18 urterekin haurdun geratu nintzen. Gogoan dut amarekin sekula ez nuela eduki halako konfiantzarik, ez nuen harekin asko hitz egiten, beraz mutilarekin nengoen arren nire familiak ez zekien haurdun nengoela. Azken batean, ezkondu beste aukerarik ez zitzaigun geratzen, zeren Hondurasen tabu handia da ezkondu gabe ekartzea haurra. Nik ordurako ondotoxo nekien mutil hura gaiztoa zela, baina ez nuen nahi etxean arazorik izaterik, beraz ezkondu egin nintzen

Pertsona horrek tratu txar fisikoak eta psikologikoak eman zizkidan ezkondu ginenetik bertatik. Ez nion inori azaldu, ez nuelako arazorik nahi. Hiriburutik gertu zegoen herririka batera joan nintzen bizitzera, eta han ez zegoen argindarrik, telebistarik, irratarik... Ez zegoen ezertxo ere. Gogoan dut lan asko egin nuela bietan, etxetik kanpo eta etxean. Egun batean senarra billar batean egon zen gaueko ordu txikiak arte eta, itzuli zenean, hauxe dut azken oroitzapena: ostiko bat eman zidan aurpegian, masailezurra apurtu zidan eta 42 egunez likidoak baizik ez nituen hartu.

Lehen ez nuen hau guztia kontatzen; orain, ordea, garrantzitsua iruditzen zait kontatzea. Bere garaian neuretzat gorde nuen dena. Azkenean banatu egin nintzen eta 10 urteko nire alabaren aita ezagutu nuen. Iruditu zitzaidan irtenbide ona zela hura, beste gizona atzean uzteko. Alaba jaio zenean, nirea baino etorkizun hobea eman nahi nion. Beraz, neure senide bat hemen bizi

zenez, pentsatu nuen hona etor nintekeela, zer suma. Ez nintzen hona etorri dirua falta zitzaidalako, han baneukan etxe bat ordaindua eta lan bat, baina alabari etorkizun hobea eman nahi nion, eta, batez ere, hainbat gauza egiteko askatasuna.

Orduan hona etorri nintzen, eta han utzi nituen alaba (urte eta erdi zeukan orduan) eta semea (bederatzi urte zeuzkan orduan). Oso gogorra izan zen, baina pentsatu nuen alaba ez zela garai hartaz oroituko. Haiek nituen beti buruan, ez ni.

Hona iristean bertatik bertara ezagutu nuen errealitatea: beste mundu bat, beste kultura bat, beste pentsamolde bat, mundua ikusteko beste modu bat... Tartean-tartean nire kasa pentsatzen nuen: "Zer egin dut? Zergatik etorri naiz hona?". Jainkoari eskerrak, azkar asko topatu nuen lana, baina oso gaizki erabiltzen ninduen familia batera iritsi nintzen. Pertsona horrek diru asko zeukan eta nik haren txaletean egiten nuen lan, guztiaz arduratzen nintzen. Pertsona horrek lan asko eginarazten zidan. Goizeko 7etatik gaueko 11ak arte aritzen nintzen lanean, atsedunik gabe, etxe osoaren arduradun. Haien jatorduen soberakinak jaten nituen, oso janari gutxi ematen zidaten, aurreko eguneko ogia ematen zidaten eta horrelako gauzak. Nik pentsatzen nuen hori izango zela normalena, gainerako neskek ere hala egingo zutela. Baina inoiz ez zidaten lagundu ez errolda-prozesuarekin, ez nire seme-alabak ekartzen ez ezertan. Eta beti sentiarazi zidan gutxiago nintzela.

Bi urtez negar egin nuen gau eta egun. Eta horregatik galdetzen diot nire buruari ea benetan merezi duen hau guztia jasan beharrak, hona etortzeko.

Jainkoari eskerrak, zenbait urte joan dira, alaba bertan daukat eta semeak hemen egingo ditu unibertsitateko ikasketak. Bartzelonako lan hura utzi nuen, hona etorri nintzen eta jende onarekin topatu nintzen; haiei esker ez dut lehen bezala pentsatzen hemen dagoen arrazakeriaz. Izan ere, arrazakeria badago, egon, eta beti sentitzen dut, baina badaude pertsona onak, eta neuk horri eutsi nahi diot".



**Giza
Liburutegiak**

**Bibliotecas
Humanas**

2018



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural